Bestelako Xedapenak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

3967

EBAZPENA, 2009ko ekainaren 16koa, Administrazio eta Dirubideen zuzendariarena, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2008ko uztailaren 29ko Aginduaren babesean beka eman zaien ikasleen behin betiko zerrenda argitara ematen duena. Agindu horrek 2008-2009 ikasturterako unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko ikasketa-laguntzetarako deialdia egin zuen.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2008ko uztailaren 29ko Aginduaren bidez, unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko 2008-2009 ikasturterako ikasketa-laguntzetarako deialdia egin zen.

Goian adierazitako deialdi-aginduaren 33. artikuluak xedatu duenarekin bat etorriz, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– 2008-2009 ikasturterako ikasketa-laguntzak emateko behin-behineko ebazpenak behin betiko bihurtzea.

Bigarrena.– Ebazpen hau eta ikasketa-laguntzak eman zaizkien eskatzaileen zerrendak dagozkion Hezkuntza Ordezkaritzetan argitara daitezen agintzea. Zerrenda horiek aipatu ordezkaritzetako iragarki-oholetan erakutsiko dira, Ebazpen hau EHAAn argitaratzen den egun beretik aurrera. Zerrenda horietan agertzen ez diren eskabideak ezetsitzat joko dira.

Hirugarrena.– Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen, eta interesatuek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean, zerrendak dagozkion ordezkaritzetan argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Laugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko ekainaren 16a.

Administrazio eta Dirubideen zuzendaria,
JOSÉ CARLOS CRESPO VELASCO.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

3967

RESOLUCIÓN de 16 de junio de 2009 del Director de Administración y Gestión Económica, por la que se publica la relación definitiva de los alumnos a los que les ha sido concedida beca, al amparo de la Orden de 29 de julio de 2008 del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se convocan ayudas al estudio para la escolarización de alumnos de niveles no universitarios para el curso académico 2008-2009.

Por Orden de 29 de julio de 2008, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, se convocaron ayudas al estudio para la escolarización de alumnos de niveles no universitarios para el curso académico 2008-2009.

De conformidad con lo establecido en el artículo 33 de la Orden de convocatoria arriba indicada,

RESUELVO:

Primero.– Elevar a definitivas las resoluciones provisionales de concesión de ayuda al estudio para el curso 2008-2009.

Segundo.– Ordenar la publicación en las Delegaciones de Educación correspondientes, de esta Resolución y de los listados de solicitantes a los que se les concede la ayuda al estudio. Dichos listados se expondrán en los tablones de anuncios de las citadas Delegaciones a partir del mismo día de la publicación de esta Resolución en el BOPV. Las solicitudes que no figuren en estos listados se entenderán desestimadas.

Tercero.– Contra esta Resolución, que no agota la vía administrativa, los interesados podrán interponer recurso de alzada ante la Viceconsejera de Administración y Servicios en el plazo de un mes a partir del día siguiente de la publicación de los listados en las correspondientes Delegaciones.

Cuarto.– Ordenar la publicación de esta Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 16 de junio de 2009.

El Director de Administración y Gestión Económica,
JOSÉ CARLOS CRESPO VELASCO.